

FAMILIENTZAKO GIDA

2025-2026 IKASTURTEA



1. SARRERA eta IRTEERAK:

SARRERAK	
IKASTURTE OSOA: 9:00	
<u>GARRAIOA ERABILTZEN DUTEN IKASLEAK</u> ● HH/LH1-2: sarrera nagusitik. ● LH 3-4-5-6: baratzaren ondoan dagoen jolastokiko atetik. <u>GARRAIOA ERABILTZEN EZ DUTEN IKASLEAK</u> ● HH: bere gelako atetik. ● LH 1-2: jantoki ondoko atetik. ● LH 3-4-5-6: baratzaren ondoan dagoen jolastokiko atetik. Geletara: LH 4: gimnasio ondoko atetik. LH 3-5-6: baratzetik gertu dagoen atetik.	

IRTEERAK			
IRAILA-EKAINA-OSTIRALAK			
13:00 BAZKALDU GABE	14:00-14:15 BAZKALDU ONDOREN (1. aukera)	14:45 GARRAIATUAK (2. aukera)	14:50-15:25 ORKOIENGOAK (2. aukera)
<u>GARRAIOA ERABILTZEN DUTEN IKASLEAK</u> 14:45 ● HH/LH 1: sarrera nagusitik. ● LH 2-3-4-5-6: baratzetik gertu dagoen atetik. <u>GARRAIOA ERABILTZEN EZ DUTEN IKASLEAK</u> 13:00 ● HH: bere gelako atetik. ● LH 1-2: jantoki ondoko atetik. ● LH 3-4-5-6: baratzetik gertu dagoen atetik. <u>JANTOKIA ERABILTZEN DUTEN IKASLEAK</u> ● HH-LH1: 14:00- 14:15 (irteera malgua): Haur Hezkuntzako jolastokian jaso behar dira haurrak. ● LH 2-3-4-5-6: 14:00- 14:15(irteera malgua): Lehen Hezkuntzako jolastokian jaso behar dira haurrak, baratzetik gertu dagoen atetik sartuta. 14:50-15:25 HH eta LH1-Haur Hezkuntzako jolastokian. 14:50-15:25 LH2-3-4-5-6- LH baratzetik gertu dagoen atetik.			

URRIA-MAIATZA, ASTELEHENETIK OSTEGUNERA	
12:50 BAZKALDU GABE	16:30 ESKOLA AMAIERA
12:50: ● HH: bere gelako atetik. ● LH 1-2: jantoki ondoko atetik. ● LH 3-4-5-6: baratzetik gertu dagoen atetik. ** Ikasle hauek 14:50ean eskolara bueltatu behar dira. (HH, LH1-2 jantoki ondoko atetik eta LH3-4-5-6 sarrera nagusitik) <u>GARRAIOA ERABILTZEN DUTEN IKASLEAK</u> 16:30: autobusen irteera (seme-alaben bila etorri nahi izanez gero, 16:25ean autobusen sarreran jaso behar dituzue. Familia egon ezean, autobusera igoko dira). <u>GARRAIOA ERABILTZEN EZ DUTEN IKASLEAK</u> 16:30: ● HH: bere gelako atetik ● LH 1-2: jantoki ondoko atetik. ● LH 3-4-5-6: baratzetik gertu dagoen atetik.	

*** IRAILEKO LEHEN EGUNEKO SARRERAK**

Lehenengo egunean irakasleak ikasleei dagokien atean harrera egingo die.

*** IRTEERAK**

- **LH2 arteko ikasleak:** baimendutako pertsona heldu batek etorri behar du beti; bestela, idatziz jakinarazi behar da.
- **Etxera bakarrik joateko:** LH3tik aurrera baimena sinatuta ekarri beharko dute (anai-arreba txikiagoak eramateko baita ere).
- Sarrera eta irteeretan **puntualtasuna** eskatzen dizuegu. Gogorazten dizuegu 9:05tik aurrera, sarrera ate nagusitik egin behar dela.

2. ZUZENDARITZA, ORIENTAZIOA, ADMINISTRAZIOA, ATEZAINITZA ORDUTEGIAK:

ORDUTEGIA			
ZUZENDARITZA	ADMINISTRAZIOA	ATEZAINITZA	ORIENTAZIOA
Aldez aurretik hitzordua eskatuta.	8:45-14:45	8:20-12:45 13:45-16:40 (ostiraletan 15:40 arte).	10:00-14:30. Aldez aurretik hitzordua eskatuta

3. IKASTETXEKO LANGILEAK:

IKASTETXEKO LANGILEAK		
ZUZENDARITZA TALDEA	ZUZENDARIA	Maidar Albeniz Elso (HH)
	IKASKETA BURUA	Andrea Aldaz Donamaria (Ingelesa)
	IDAZKARIA	Marta Urdanoz Melado(GH)
TUTOREAK	HH 1A	Bea Dorai Sala
	HH 2A	Nerea Tihista Leoz
	HH 3A	Amaia Biteri Zubia
	LH 1A	Itziar Irigoyen Casado
	LH 2A	Ainara Elizondo Torres
	LH 2B	Idoia Gartzaron Zudaire
	LH 3A	Araceli Larrañeta Almirantearena
	LH 3B	Sandra Recondo Igoa
	LH 4A	Amaia Espinosa Martinez
	LH 4B	Aritz Gil Abete
	LH 5A	Oihane Irazusta Arzac
	LH 5B	Ana Fernández Solchaga
	LH 6A	Esther Olite Munarriz
	LH 6B	Maite Saenz Salinas
ESPEZIALISTAK	INGELESA	Katrin Ancín Izpura Andrea Aldaz Donamaria Haizea Huarte Etxeberria Asier Hidalgo Alonso
	LH LAGUNTZA	Joxean Calvillo Arteaga
	GORPUTZ HEZKUNTZA	Victor Mendaza Clemente Marta Urdanoz Melado
	MUSIKA	Axier Fernández Alvaro

	ERLIJIOA	Iñaki Mindeguia Pérez de Obanos
	ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA	Garbiñe Artola Madrigal
	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	Cristina González Navarro
	ORIENTATZAILEA	Beñat Azkona Goñi
BESTE LANGILEAK	ADMINISTRARIA	Ainhoa Irigibel Irotz
	ATEZAINA	Jose Ropero Sánchez
	HEZKUNTZA-LAGUNTZA ESPEZIALISTAK	Carol Pérez Delgado Celia Uriz Lusarreta Itziar Uriz Fresneda

3. ESKOLA GARRAIOA

Ikasturte honetan, 4 ibilbide egonen dira eta zerbitzua UTE PAMPLONA (0715 ibilbidea) eta AUTOBUSES CUADRA (0716, 0717 eta 0718 ibilbideak) enpresei esleitu zaie.

Autobus bakoitzeko ibilbidea, ordutegiak eta monitoreak ondoko taulan dituzue:

25-26 GARRAIOA / TRANSPORTE 25-26			
IBILBIDEAK	HERRIAK	GOIZEKO ORDUTEGIAK	ARRATSALDEKO ORDUTEGIAK (***iraila, ekaina eta ostiralak)
LÍNEA 1 - 0716	ETXAURI 42	8:28	16:50 (**15:03)
Blanki 666835026	IZA 5	8:38	16:40 (**14:53)
LÍNEA 2 - 0717	BIDAURRETA 17	8:25	16:59 (**15:04)
Cristina 626358358	ETXARRI 4	8:27	16:55 (**15:00)
	IBERO 10	8:37	16:43 (**14:48)
LÍNEA 3 - 0715	LIZASOAIN 4	8:10	16:40 (**15:05)
Alba 617806777	EGILLOR 7	8:17	16:50 (**15:15)
	ASIAIN 3	8:22	16:45 (**15:10)
	IZU 3	8:24	16:56 (**15:21)
	ARTAZKOTZ 2	8:27	16:58 (**15:23)

	IZKUE 1	8:29	17:00 (**15:25)
LÍNEA 4 - 0718	ORORBIA 24	8:40	16:45 (**15:00)
Arantxa 669334037	ARAZURI 24	8:50	16:40 (**14:55)

OSOTARA: 146

Autobus-zerbitzuan funtzionamendu hobea eta segurtasun handiagoa lortze aldera, honako gomendioak jarraitzeko eskatzen dizuegu:

- HH1tik LH3 bitarteko ikasleek beren identifikazio-txartela, ondo ikusteko moduan, egunero eraman beharko dute motxilatik zintzilik.
- **Edozein arrazoi dela-eta semea edo alaba etxera itzultzeko eskola-garraioa erabiliko ez balu, eskolari oharririk bidali gabe, autobusen irteera baino 5´ lehenago autobusen sarreran egon behar duzue. Familia egon ezean, autobusera igoko dira.**
- Ikaslea hartu ohi duen pertsonak ezin badu egunen batean jaso, autobusaren zaintzaileari ere jakinarazi beharko dio, sinatutako idazki baten bidez edo whatsapp-en bidez.
- **Lehen hezkuntzako ikasleak etxera bakarrik joan daitezen utzi nahi duten familiek, geltokian heldu baten zain egon gabe, edo anaia edo arreba nagusi batek har ditzan, autobusaren arduradunekin hitz egin eta idatzizko baimena eskolan aurkeztu beharko dute.**
- Edozein gorabehera (autobusaren puntualtasuna, familien puntualtasun falta, ikasleekin arazoak, iradokizunak...) zuzendaritzari jakinarazi behar zaio, sortzen diren arazoak konpondu ahal izateko.
- Autobusean berea ez den beste geltoki batean jaisteko, eta zaintzaileek horretarako baimena eman diezaieten, familiaren idatzizko baimena izan beharko dute, eta autobusez aldatu behar ez izatea.

4. ESKOLA KONTSEILUA

Eskola Kontseiluan egoki iritzitako iradokizun guztiak egin ditzazuen, familien ordezkariak zeintzuk diren adierazten dizuegu:

- Sonia Ayerra
- Yon Zuñiga (Baietz Guraso Elkarteko ordezkaria)
- Hutsik
- Hutsik
- Hutsik

5. IKASTURTE HASIERAKO BILERA OROKORRAK

Ikasturtearen hasieran, normalean urrian, talde bakoitzeko irakasleek bilerak egingo dituzte ikasleen gurasoekin, ikasturtearen garapenarekin zerikusia duten gaiak lantzeko.

Bilkuren datak idatziz jakinaraziko dira eta 16:30tik aurrera izanen dira.

Hautzaindegi zerbitzua egongo da Lehen Hezkuntzako 2. maila arte.

6. HEZKIDETZA PLANA

Auzalarreko Hezkidetza Planari jarraituz, ikastetxetik gomendio eta jarraibide batzuk luzatzen dizkizuegu:

- Guraso bilerak:
 - Eskola-komunitatea osatzen duten familien aniztasuna kontuan hartuta, garrantzitsua iruditzen zaigu, bai bilera orokorretan bai banakakoetan, gurasoek ahalik eta parte-hartze handiena izatea, familia bakoitzaren arabera.
 - Bilera horietan izandako parte-hartzea ezagutzeko, aurten datu horien erregistro bat egitea pentsatu da, bertaratze-ehunekoak generoaren arabera aztertzeke.
- Eskolara ekarri beharreko materiala
 - Ikasleek etxetik ekartzen duten materiala anitza izan dadin saiatuko gara eta esterotipoak apur ditzaten sustatuko dugu. Hala nola, haur Hezkuntzan, edalontzia, hamaiketakoaren poltsatxoak, jostailuak... anitzak izan daitezen saiatuko gara kolore edota genero estereotipo aldetik.
 - Arropa aukeratzeko ere bai, kolore eta irudiak anitzak izan daitezen edota estereotipoak apurtzen dituztenak izan daitezen saiatuko gara.

Bukatzeko, dokumentu honekin batera, hizkuntza inklusiborako gidatxo bat banatzen dizuegu:

[Hizkuntza inklusiborako gida](#)

7. OHAR LABUR INTERESGARRIAK

- **URTEKO KUOTAK:** material suntsikorrerako, bankutik kobratuko dira:
 - Haur Hezkuntza: 50€ (urria-azaroan kobratuko da).
 - Lehen Hezkuntza: 40€ (otsailean kobratuko da).
- **JANTOKIKO OHARRAK:** Orkoiengo ikasleren bat ez bada egunen batean jantokira joan behar, menuaren zenbatekoa itzultzeko, egunean bertan goizeko 9:00ak baino lehen abisatu beharko da (948326732/cpoauzala-jantoki@educacion.navarra.es). Eskolara etortzeko bada, baina ez bada bazkaltzera geratuko, goizeko 9:00ak baino lehen jakinarazi beharko zaio tutoreari posta elektronikoz (egun horretan jantokia erabiltzen ez duten ikasleekin irten behar duela jakin dezan).
- **GAILU ELEKTRONIKOAK:** ikastetxera zein ateraldi edo kanpaldietara ez da aparatu elektronikorik ekarriko, ezta mugikorrik ere; izan ere, jolasa eta ikaskideen arteko harremana eragozten dutela uste dugu.

- **PATOLOGIAK ETA HITZARMEN ARAUTZAILEAK DITUZTEN IKASLEAK:**

- Funtsezkoa da patologiei, alergiei eta intolerantziei buruzko informazioa eguneratuta egotea beti ikastetxean. Beraz, aldaketaren bat badago, lehenbailehen jakinaraztea eskatzen dugu.
- **BANAKETA EDO DIBORTZIO** egoeretan, eskola-eremuari eragiten dion adingabearen zaintza arautzen duen epairik badago, lehenbailehen jakinarazi behar da. Beharrezkoa izanez gero, informazio hori jasotzen duen epaiaren zatia aurkeztea eskatzen dizuegu. Oso garrantzitsua da, halaber, informazio hori beti eguneratuta egotea ikastetxean.

- **OSASUNA ETA HIGIENEA:**

- Gogorarazten dizuegu ikastetxean ezin dela BOTIKARIK eman. Edozein zalantza izanez gero, jo zuen tutorearengana.
- Haurrak eskolara gaixorik joan ez daitezen saiatu behar duzue, ez baitaude ongi eta gainerakoak kutsa baititzakete.

- **FAMILIEN BISITA:**

Familiek eskatuta, ikastetxera etorri ahal izango da tutorea ezagutzera. Garrantzitsua da epostaz tutoreei zuen bertaratzea baieztatzea. Hau da horretarako data:

- Haur eta Lehen Hezkuntza: **irailaren 3an, asteazkena, 12:00etan.**

- **TUTORETZAK:**

- Derrigorrezko bi tutoretza burutuko dira, ikasturte hasieran eta amaieran eta, ikasturtean zehar beharrezkoa den guztietan.
- Aurrez aurrekoak izango dira.
- Kasuren batean familiek online edo telefonoz egin ahal izatea eskatzen badute, irakasleak izango du azken hitza bileraren formatuari dagokionez.

- **SARRERA ETA IRTEERAK:**

- **Eskola-orduetan haur bat ikastetxetik atera dadin, heldu bat etorri beharko da jasotzera.** Pertsona horrek, aldezturik, irteera hori baimentzen duen inprimaki bat sinatu beharko du (atezaintzan egongo da). Etortzen den pertsona ezaguna ez bada, behar bezala identifikatu beharko du bere burua, eta familiaren idatzizko baimena ekarri beharko du.
- Seme-alabak jasotzera eta/edo laguntzera autoz hurbiltzen zaretenean, **aparkatu behar bezala**, pasabidea errespetatuz eta, batez ere, eskola-autobusak pasatzea oztopatu gabe.
- Garraiatutako ikasleen segurtasuna eta kontrola bermatzeko, gogorarazten dizuegu **debekatuta dagoela autobus-geltokian aparkatzea** eskola-garraioa iristen eta irteten den bitartean.

- Gainera, ikasleentzat zuen arriskua dela eta (autobusen aurrean gurutzatzen diren ibilgailuak edo haurrak autobusetik irteten ari direnean sartzen saiatzen direnak), **familiak ezin izango dute barruko aparkalekua erabili, aparkaleku hori zentroko langileek bakarrik erabiltzen baitute.**
- **IKASTETXEKO DATUAK:**

- **TELEFONOA:** 948 32 67 32
- **EPOSTA :** auzalarip@educacion.navarra.es
- **WEB ORRIA:** <https://auzalarip.educacion.navarra.es/web/es/>

8. BAIETZ GURASO ELKARTEA:

Bazkideak diren familia guztiek osatzen dute, eta Batzorde baten bidez antolatzen da. Batzorde horrek batzordeen bidez funtzionatzen du: jaiak, eskolaz kanpokoak, ekonomikoa, formakuntza, goizeko gela, euskara eta abar.

Sartzeko, nahikoa da Auzalarren irakaskuntza jasotzen duen edozein umeren aita, ama, arduraduna edo tutorea izatea, indarrean dauden estatutuak onartzea, borondatez eskatzea eta dagokion kuota ordaintzea.

Besteak beste, kontziliazio- eta aisialdi-zerbitzuak ematen dizkie Auzalarreko familiei eta ikasleei.

Elkarteko kide izateko eta zerbitzu guztiak eskuratu ahal izateko, urteko kuota ordaindu behar da familia bakoitzeko.

Bazkidea izanez gero, zenbatekoa urtero kargatzen da lehenengo aldiz ordaintzeko erabilitako kontuaren bidez, kontrakoa jakinarazten ez bada behintzat (adibidez, institutura doazen ikasleen familiak edo ikastetxez aldatzen diren familiak).

- **GURASO ELKARTEKO BLOGA:** baietzgurasoelkartea.blogspot.com (blog honetan harpidetu zaitezkeite jakinarazpenak zuen posta elektronikoan jasotzeko).
- **POSTA ELEKTRONIKOA:** baietzge@gmail.com
- **AUZALAR IKASTETXEKO GURASO ELKARTEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:** zerbitzu horiek erabili ahal izateko, elkarteko bazkidea izatea ezinbestekoa da.

- **GOIZEKO GELA:**

Guraso Elkartek, familien eskariz, haurtzaindegi zerbitzua kudeatzen du 7:35etatik 9: 00etara. Zerbitzu hau erabili nahi duenak (urrian izena eman dezake) APYMArekin jarri beharko du harremanetan (baietz.aulamatinal@gmail.com).

- **ESKOLAZ KANPOKOAK:**

Helburua da ikastetxea bere ingurunera zabaltzea eta ikasleei prestakuntza integrala ematea beren kultura-ikuspegia zabaltzeko, sozializatzei edo aisialdia erabiltzeko buruzko

alderdietan.

Eskola-orduetatik kanpo egiten dira, borondatezkoak dira eta ez dira ebaluazio-prozesuaren parte, baina bai dira ikastetxearen barruan egiten diren hezkuntza-jarduerak, eta, beraz, ikastetxeko bizikidetza-arauak eta funtzionamendua errespetatu behar dituzte.

- **GURASO ELKARTEKO BATZORDEAK:**

BATZORDEA	JARDUERAK
OSPAKIZUNAK	Eguberrietan eta inauterietan sarrera apaindu. Gaztainaren festa. Ikasturte amaierako jaia.
EKONOMIKOA	Guraso Elkarteko gastu eta sarreren ikuskapena. Ordainagiriak kudeatzea.
FORMAKUNTZA	Familia eta gurasoentzako prestakuntza, hitzaldi, tailerrak...
GOIZEKO GELA	Goizeko haurtzaindegiz-zerbitzua kudeatzea Zerbitzua emango dela bermatzea. Ordainagirien kobrantza
EUSKARA	Euskaraz mintza.

**DENOK OSATZEN DUGU AUZALAR ETA HEMEN EGONGO GARA BEHAR
DUZUEN GUZTIETAN,
FAMILIA ETA ESKOLA HELBURU BERA DUEN TALDE HANDI BAT GARA:
ZUEN SEME-ALABEN HEZKUNTZA ETA ONGIZATEA.**

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK.